

**Herritarrek sektore pribatuan pairaturiko sexuan oinarritutako  
diskriminazioari aurre egiteko herritarren arretarako zerbitzua**

**2016. URTEKO TXOSTENA**



EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HITZAURREA.....	2
1. ESPARRU OROKORRA.....	3
1.1 Artatutako kasuak.....	4
1.2 Kasuen gaiak eta maiztasuna .....	7
1.3 Kexa eta salaketak bideratzeko eta ezezteko arrazoiak.....	8
2. MARKO JURIDIKOA ETA IKERTUTAKO KEXA ETA SALAKETEN TRATAMENDUA.....	8
2.1 Komunikabideak eta publizitatea .....	9
2.2 Lan-eremua.....	21
2.3 Beste eremu batzuk .....	24
3. KEXAK ETA SALAKETAK, BESTE INSTANTZIA BATZUETARA BIDERATUAK, EZETSIK ETA EZ-ONARTUAK.....	27
4. KOORDINAZIO- ETA LANKIDETZA-MEKANISMOAK.....	30

## HITZAURREA

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak 2016. urteko txostena egin du, modu horretan betez otsailaren 16ko 3/2012 Legearen 70. artikuluan ezarritakoa; txosten horretan, sektore pribatuan sexuan oinarritutako diskriminazioa pairatu duten herritarrei arreta emateko 2016. urtean artatutako kasu guztiei buruzko informazioa jasotzen da. Era berean, ikertutako kexa eta salaketak jaso dira, baita bideratuak, ezetsiak, artxibatuak eta ez-onartuak ere.

Txostena lau ataletan egituratzen da. Lehenengoak sektore pribatuan sexuan oinarritutako diskriminazioa pairatu duten herritarrak defendatzeko jarduketa-esparru orokorra du hizpide, eta erantzun diren kontsulta, kexa eta salaketen datu orokorrak eskaintzen ditu; bigarrenean, izapidetu diren kexa eta salaketei buruzko informazioa biltzen da, bai eta eremu bakoitzeko erreferentziako esparru juridikoa ere; hirugarrenak, berriz, ezetsi, artxibatu eta onartu ez diren kexa eta salaketen berri ematen du, eta beste instantzia eskudunetara bideratu direnena ere bai. Azkenik, laugarrenean zehazten dira organismo eta erakundeen arteko koordinazio- eta lankidetzeta-mekanismoak.

# 1. ESPARRU OROKORRA

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea sortzea xedatu zen, sexu-diskriminazioko egoeretan herritarrak defendatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa betetzea sustatzeko organo gisa, eta bere funtzioak eremu pribatura mugatzen ziren.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea aldatzen dituen otsailaren 16ko 3/2012 Legeak defentsa-erakundea ezabatu zuen, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari bere edukiak, eskumenak eta funtzioak esleitu zizkion; nolana ere, atxikipen organiko berria dela-eta, funtzioak pixka bat doitu ziren, eta, gaur egun, honako hauek ditu:

- a) Ikerketak egitea, ofizioz edo alderen batek eskaturik, sektore pribatuan ustez gertatutako sexuagatiko zuzeneko edo zeharkako diskriminazio-egoerak argitzeko.
- b) Negoziatzeko bideak ematea eta gomendioak egitea pertsona fisikoei nahiz juridikoei, sektore pribatuan sexu-diskriminazioko egoerak edo ekintzak zuzentzeko, eta gomendio horien jarraipena egitea, betetzen diren ala ez ikusteko.
- c) Herritarrei aholku ematea, sektore pribatuan sexu-diskriminazioko egoerak egon daitezkeenean.
- d) Bitarteko izatea jazarpen sexistaren kasuak konpontzen laguntzeko.
- e) Egiten dituen jardueren eta ikerketen berri ematea, eta txostenak eta irizpenak egitea, lege honetan xedatutakoarekin bat.
- f) Lan-arloko agintaritzarekin lankidetzan jardutea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan diskriminazioaren aurkako lan-arauak betetzen diren begiratzeko.

## 1.1 Artatutako kasuak

### BEREHALAKO AHOLKULARITZA


Herritarrek informazioa eta aholkularitza eskatu edo kexak edo salaketak aurkez ditzakete, dela aurrez aurre, dela telefonoz edo posta elektronikoz edo posta arruntez. 2016an, aurreko urtearen erdialdean hasitako hobekuntza nabarmenarekin jarraitu da; izan ere, arreta-puntu bana ireki ziren Bilbon eta Donostian (Gasteizen beste bat zegoen lehendik). Aurrez hitzordua hartu beharra dago. Modalitate horretan, 17 bilera egin dira, eta horietan 15 pertsona artatu dira.

Oro har, 2016an berehalako 360 aholkularitza-kontsulta zenbatu dira, telefono bidezkoak eta aurrez aurrekoak. Lanaren, familiaren eta laguntzen esparruan eman dira, besteak beste, berehalako erantzunak. Eskatzaileen % 90 emakumezkoak izan dira, eta % 10 gizonezkoak.


### AURRETIKO AZTERKETA ESKATZEN DUTEN KONTSULTEN ERANTZUNAK ETA KEXA- ETA AZTERKETA-PROZEDURAK

2016ean aurretiko azterketa eskatzeagatik idatziz erantzundako kontsultak eta kexa- eta salaketa-prozedurak 162 izan dira guztira; horietatik, 65 kontsultak izan dira (% 40), 71 kexak (% 44) eta 26 salaketak (% 16).


#### Artatutako kasuak, motaren arabera



2016ko datuen arabera, aurreko urtean baino kasu gehiago daude, zehazki 35 prozedura gehiago, hau da, % 27 gehiago.




Eskatzaile gehienak posta elektronikoaren bidez komunikatu dira: kontsulten %75; kexen %86 eta salaketen %76. Beraz, gutxiago erabili dira posta arrunta, telefona eta bide presentziala.



Eskatzaileen artean, %77 emakumeak izan dira, eta %23 gizonak, alde batera utzita zein zen kasuaren xede zen eskubidearen edo interesaren pertsona titularra.

### Sexo




## 1.2 Kasuen gaiak eta maiztasuna

Goian aipatutako kasuen gaiei eta maiztasunari dagokienez, honako banaketa hau ikusten da:

- Jasotako eskaeren heren bat baino gehiago (%35) **komunikabideei eta publizitateari** buruzkoak dira. Ildo horretan, bi kontu nagusi aipatu behar dira: batetik, BEGIRA-publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku-batzordeak egiten duen lana –batzorde hori 360/2013 Dekretuak arautzen du– eta, bestetik, Emakunde herritarrentzako egiten ari den komunikazio-jarduera.
- % 28 **lan-arlokoak** izan dira, batez ere honako hauei lotutakoak: norbere bizitza familia- eta lan-bizitzarekin kontziliatzeko eskubidea baliatzea; amatasuna edo aitatasuna dela-eta pairatutako diskriminazioa eta sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena.
- Azkenik, beste gai batzuei buruzko eskaerak «**beste eremu batzuk**» eremuan bildu dira (% 37); adibidez, elkarte edo kirolei buruzkoak.

### Kasurak, jarduketara-eremuaren arabera





### 1.3 Kexak eta salaketak beste instantzia batzuetara bideratzeko eta ezesteko arrazoiak

Ulertzeko zer arrazoi dauden kexak eta salaketak beste instantzia batzuetara bideratzeko edo ezesteko, jakin behar da zer muga dituen Emakundek bere funtzioak betetzerakoan; izan ere, sexuan oinarritutako diskriminazioa pairatu duten herritarrak defendatzeari dagokionez Emakunderen eskumena eremu pribatura eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eremura mugatzen da.

Azkenik, ez dira Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen ardurakoak ez epai irmoa duten edo ebazpen judizialaren zain dauden kexak, ez pertsonen intimitateari buruzkoak, ez eta sexu-diskriminazioarekin zerikusirik ez dutenak ere.

## 2. MARKO JURIDIKOA ETA IKERTUTAKO KEXA ETA SALAKETEN TRATAMENDUA

Gaur egun, zabala eta konplexua da sexuan oinarritutako diskriminazio-egoeretan dauden herritarrak defendatzeko jarduketaren esparru juridikoa. Jarraian aipatzen da zein diren berdintasunerako eta sexuan oinarritutako diskriminaziorik ezerako eskubidearen alde egitea babesten duten **oinarrizko arauak**:

- Emakumearen aurkako Bazterkeria Modu guztiak Ezabatzeko Hitzarmena; NBEren esparruan hartutako nazioarteko araua –horren bidez, estatu sinatzaileek, bitarteko egoki guztien bidez eta luzapenik gabe, emakumeen kontrako diskriminazioa ezabatzeko politika jarraitzea hitzartu dute–. Hori horrela: «Emakumearen aurkako diskriminazioa» esamoldeak agertuko du sexuan oinarritutako diskriminazio, bazterketa edo murrizketa oro, halakoen xedea edo ondorioa denean kaltetzea edo deuseztatzea (politika-, ekonomia-, gizarte- nahiz kultura-esparruetan, esparru zibilean edo beste edozein esparrutan) emakumeari aitortutako giza eskubide eta oinarrizko askatasunak, eta horien izatea eta egikaritzea, haren egoera zibila gorabehera, gizonaren eta emakumearen arteko berdintasuna oinarri.
- 1978ko Espainiako Konstituzioa; horren 14. artikulua ezartzen du espainiarrak berdinak direla legearen aurrean, eta ezin dela sexu-diskriminazioa gailendu.

- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eraginkorrari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak xedatzen du emakume eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioak edozein motatako diskriminazioa baztertzen duela, zuzenekoa edo zeharkakoa izan, sexu arrazoiagatik eta, batez ere, amatasunaren, familia-betebeharrak hartzearen eta egoera zibilaren ondoriozkoak.
- Tratu-berdintasunaren printzipioaren barruan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak –3/2012 Legeak aldatuta– pertsonen sexuan oinarritutako diskriminazio oro debekatzen du, zuzena ala zeharkakoa izan eta horretarako erabiltzen den modua edozein dela ere.

## 2.1 Komunikabideak eta publizitatea

Lankidetzarako barne-marko bat dago, eta horren bidez Herritarren Eskubideak Defendatzeko Arloak euskarria eskaintzen dio Begira Batzordeari, herritarrek eta Batzordeak berak ofizioz jarritako kexak kudeatuz.

Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak hala aginduta, publizitatearen eta komunikazioaren erabilera ez-sexistarako Begira Aholku Batzordeak – 360/2013 Dekretuak arautua– bere jarduketa-esparrua publizitatera zabaldu du, euskarria edozein dela ere, bai eta titulartasun publikoko eta pribatuko gizarte-komunikaziora ere, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitako erakunde elkargokidearen izaera juridikoari eutsi dio.

Lankidetzara horren barruan, 2016. urtean zehar 55 espediente landu dira goian aipaturiko bi eremu horien esparruan, hau da, publizitatearen eta komunikazioaren arloan, honela banatuta: publizitatean, 29 eskaera erantzun dira, eta komunikazioari dagokienez, 26. Ora har, adierazi behar da espediente gehienak idatzizko prentsari lotuak daudela; gero, telebistari, irratitari eta Interneti, hurrenez hurren.

Kexei dagokienez, gehienak publizitateak eta komunikabideek emakumearen gorputzari ematen dioten objektu-tratamenduari lotuak daude. Genero-estereotipoei loturiko kexak ere badaude; azpimarratzekoa da emakumeen aurkako bortizkeriari loturikoak komunikabideen eremuan bakarrik agertzen direla.

Garrantzizkoa da azpimarratzea badirela beste organismo eskudun batzuk ere, gaiaren arabera eta, batez ere, lurralde-eremuaren arabera eskumenak dituztenak. Horregatik, jasotako eskaera batzuk organismo horietarantz bideratzen dira, interesdunak bere onespina eman ondoren betiere.

Ulertzeko zer arazo-motei egin behar diegun aurre, publizitatearen eremuan izapidetzen diren kexen adibide gisa bereziki azpimarratuko genituzke etxe-garbitzaileak eta zaintzaileak eskaintzen dituzten iragarkiak, honela formulatzen direnak (gaztelaniaz): «*Si necesitas una empleada de hogar o cuidador de confianza*». Horrelako leloek argi erakusten dute zeintzuk diren genero bakoitzarentzat ezarritako portaera-ereduak eta -pautak (empleada de hogar y cuidador de confianza). Gainera, emakume profesionalen lan eta posizioak gizonezkoenak baino autoritate, garrantzi sozial eta botere gutxiagokoak bezala agertzen dira, etxeko lanak eskusiboki emakumeekin lotzen baitira. Horrelako kexen aurrean, dagozkion gomendioak ematen dira.

Komunikazioaren eremuari helduz, kexa gehienak egunkarietan emakumeari ematen zaion tratamendu estereotipatuari buruzkoak dira, batez ere bertsio digitaleko egunkarietan iragartzen diren berrietan.

<b>Q20160001 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Publizitatea. Irudi sexistak Gabonetako Haur Parkeko barraketan, BECen.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaitza</b>	BECi jakinarazten zaio

<b>Q20160003 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Publizitatea. Enpresa baten iragarkia, familia-etxeko zerbitzurako langileak eskaintzen dituena.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaitza</b>	Gomendioak bidali dira.

<b>Q20160004 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Alterneko klubaren publizitatea ibilgailuen haizetakoetan (Bilbo).



EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Eraitza</b>	Kexa Udaletxeari igorri zaio.

<b>Q20160010 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazioa</b>	Kirurgia Estetikoko Zentro baten publizitatea autobusetan.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Eraitza</b>	Gomendioak bidali dira. Publizitatea erretiratu dute.

<b>Q20160014 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazioa</b>	Komunikabidea. Egunkari batek haur baten ustezko hiltzaileari buruzko berri bati eman zion tratamendua.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Eraitza</b>	Kexa Udaletxeari igorri zaio.

<b>Q20160016 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazioa</b>	Komunikabidea. Emakume surflari bati buruzko iruzkin sexistak sare sozial batean.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Eraitza</b>	Kexa igorri zitzaien sare sozialaren arduradunei

<b>Q20160018 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazioa</b>	Publizitatea. LANBIDEREN publizitate-iragarkia.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Eraitza</b>	Entitateari jakinarazi zitzaion, eta hark erretiratu egin zuen publizitatea.

<b>Q20160021 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazioa</b>	Janari azkarreko jatetxe-kate ezagun baten publizitatea saskibaloi-partidetako atsedenetan.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.



EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERARUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

<b>Emaiza</b>	Gomendioak bidali zitzaizkien jatetxe-kateari eta antolatzaileei.
---------------	---

<b>Q20160026 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Komunikabidea. Irudi sexista udal aldizkari baten azalean.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaiza</b>	Gomendioak bidali dira.

<b>Q20160031 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Publizitatea. Optiken publizitate-iragarkia.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaiza</b>	Gomendioak bidali dira.

<b>Q20160035 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Publizitatea. Etxebizitzak alokatzen dituen sozietate publiko batek irratian egindako iragarki bat
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaiza</b>	Entitateari jakinarazi zitzaion, eta hark erretiratu egin zuen publizitatea.

<b>Q20160042 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Publizitatea. Emakumeen irudiak moda-denden kate baten onlineko katalogoan.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaiza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.

<b>Q20160043 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Publizitatea. Gorputzerako krema baten iragarkia.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.



EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERARUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

<b>Emitza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.
---------------	---

<b>Q20160044 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Komunikabidea. Abesti sexista bat Estatuko irratia batean.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emitza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.

<b>Q20160045 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Publizitatea. Brikolaje-produktu baten publizitate-iragarkia.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emitza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.

<b>Q20160046 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Publizitatea Estatuko telebista-programa batean.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emitza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.

<b>Q20160047 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Publizitatea prostituzio-etxe batean
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emitza</b>	Ezetsi egin da.

<b>C20160050 espedientea</b>	
<b>Kontsultaren arrazoia</b>	Publizitate-agentzia batek publizitate-kanpaina bati buruzko aholkularitza eskatu du.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.



<b>Emaiza</b>	Txosten tekniko bat egin da.
---------------	------------------------------

<b>Q20160053 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Publizitatea. Mezuak dituzten pegatinak, haurrak artatzeko osasun-enpresa batenak.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaiza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.

<b>Q20160055 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Publizitatea. Mugikorretako produktu-salmentarako aplikazio baten iragarkia Bilboko metroan.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaiza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.

<b>Q20160057 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Komunikabidea. Telebista-kate bateko programa-lehiaketa bat.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaiza</b>	Kexa igorri da, eta gomendioak eman dira.

<b>Q20160058 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Publizitatea. Aurikularrak saltzea, sexuaren araberako koloreekin.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaiza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.

<b>Q20160059 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Komunikabidea. Egunkari bateko berri bat, emakumeen kontrako indarkeria justifikatzen duena.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaiza</b>	Kexa komunikabideari igorri zaio. Komunikabideak bere akatsa onartu du, eta barkamena eskatu du.



<b>Q20160060 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Publizitatea. Publizitate-kartel sexista bat gazteentzako diskoteka bateko ikuskizun batean.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaitza</b>	Gomendioak bidali dira.

<b>Q20160061 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Komunikabidea. Irratiko programa bat.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaitza</b>	Gomendioak bidali dira. Irratiak bere alegazioak bidali zituen, eta berdintasunarekiko konpromisoa berretsi zuen.

<b>Q20160063 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Komunikabidea. Astekari bat.
<b>Esku hartzea</b>	Informazio gehiago eskatu zaio, kexa aztertu ahal izateko.
<b>Emaitza</b>	Ez da informazio gehiago jaso. Kexa artxibatu da.

<b>Q20160064 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Komunikabidea. Ikastetxe bateko adingabeek bisitaldi kultural bat egin dute egunkari batera, eta han prostituzio-iragarkiak dituen egunkari-ale bana eman zaie.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaitza</b>	Gomendioak bidali dira.

<b>Q20160066 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Publizitatea. Mezu sexistak dituzten pegatinak.
<b>Esku hartzea</b>	Informazio gehiago eskatu da, kexa aztertu ahal izateko.
<b>Emaitza</b>	Ez da informazio gehiago jaso. Kexa artxibatu da.

<b>Q20160073 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Komunikabidea. Telebista-programa bat.





EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERARUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaitza</b>	Kexa igorri da, eta gomendioak eman dira.

<b>Q20160078 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Publizitatea. Banaketa-talde baten udako kanpaina.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaitza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.

<b>Q20160079 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Publizitatea. Xanpu baten iragarki sexista.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaitza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.

<b>Q20160082 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Publizitatea. Auto-alokairuen enpresa baten publizitate spota.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaitza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.

<b>Q20160087 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Komunikabidea. Emakumeei buruzko artikulu bat aldizkari batean.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaitza</b>	Berria komunikabideari igorri zaio.

<b>Q20160096 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Komunikabidea. Bere alaba bortxatu zuen aita bati buruzko artikulua bitarteko digital batean.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaitza</b>	Kexa komunikabideari igorri zaio.



EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

<b>Q20160099 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Publizitatea. Saskibalo-klub batek bazkideak erakartzeko egindako kanpaina sexista.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaitza</b>	Gomendioak bidali zitzaizkion klubari eta entitate laguntzaileari. Entitateak adierazi du une honetan ez dutela klubarekiko lankidetzarik.

<b>Q20160100 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Komunikabidea. Tratamendu desagokia eman zitzaion genero-indarkeriari buruzko berri bati (emakumearen eta alabaren berbiktimizazioa). Egunkaria.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaitza</b>	Kexa komunikabideari igorri zaio.

<b>Q20160103 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Komunikabidea. Prostituzio-iragarkiak.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaitza</b>	Kexa komunikabideari igorri zaio.

<b>Q20160104 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Komunikabidea. Tratamendu desagokia eman zaio festa batzuetan gertaturiko sexu-eraso bati buruzko berriari. Egunkaria.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaitza</b>	Kexa komunikabideari igorri zaio.

<b>Q20160107 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Publizitatea. Garagardo-marka baten publizitate-iragarkia.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaitza</b>	Institut Catalá de les Dones erakundeari igorri zaio.

<b>Q20160108 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Komunikabidea. Pertsona publiko bati buruzko artikulu bat bitarteko digital batean.



EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERARUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaitza</b>	Kexa komunikabideari igorri zaio.

<b>Q20160109 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Komunikabidea. Egunkari bateko artikulua.
<b>Esku hartzea</b>	Aztertu da.
<b>Emaitza</b>	Kexa komunikabideari igorri zaio.

<b>Q20160112 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Komunikabidea. 2016ko Rioko waterpoloko emakume igerilarien bainujantziei buruzko artikulua bat bitarteko digital batean.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaitza</b>	Kexa komunikabideari igorri zaio.

<b>Q20160113 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Komunikabidea. Tratamendu desagokoa eman zaio festa batzuetan gertaturiko sexu-eraso bati buruzko berriari. Bitarteko digitala.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaitza</b>	Kexa komunikabideari igorri zaio.

<b>Q20160116 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Publizitatea. Altzariei buruzko iragarki bat irrati-kate batean.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaitza</b>	Gomendioak igorri zaizkie enpresari eta irrati-kateari. Kanpaina erretiratu dute. Bi entitateek barkamena eskatu dute.

<b>Q20160117 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Publizitatea. Euskaltegi baten iragarkia.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.



EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

<b>Emitza</b>	Kanpaina erretiratu dute.
---------------	---------------------------

<b>Q20160119 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Komunikabidea. Iruzkin sexistak egunkari bateko foro digitalean.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emitza</b>	Kexa igorri da. Komunikabideak barkamena eskatu du.

<b>Q20160120 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Komunikabidea. Emakumeen irudi sexistak kirol-egunkari batean.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emitza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.

<b>Q20160125 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Komunikabidea. Festa batzuetan gertaturiko sexu-eraso bati buruz telebista-programa batean emandako iritziak.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emitza</b>	Kexa igorri da. Komunikabideak dio bere jarduketak egokiak direla.

<b>Q20160131 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Komunikabidea. Emakumeen irudi sexistak egunkari baten bertsio digitalean.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emitza</b>	Espainiako Emakumearen eta Aukera Berdintasunaren Institutuko Emakumeen Irudiaren Behategira bideratu da.

<b>Q20160133 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Komunikabidea. Lehiaketa sexista bati buruzko publizitatea aldizkari batean.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emitza</b>	Institut Catalá de les Dones erakundera bideratu da.



EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

#### Q20160138 espedientea

<b>Kexaren arrazoia</b>	Publizitatea. Nazioarteko janari-lehiaketa baten kanpaina.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaitza</b>	Gomendioak bidali dira.

#### Q20160147 espedientea

<b>Kexaren arrazoia</b>	Komunikabidea. Brasilen antolatzen den "el mejor culo" lehiaketari buruzko artikulu bat. Bitarteko digitala.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaitza</b>	Berria komunikabideari igorri zaio.

#### Q20160142 espedientea

<b>Kexaren arrazoia</b>	Publizitatea. Diskoteka bateko ikuskizun bati buruzko iragarkia.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaitza</b>	Gomendioak bidali dira.

#### C20160153 espedientea

<b>Kontsultaren arrazoia</b>	Publizitate-agentzia batek publizitate-kanpaina bati buruzko aholkularitza eskatu du.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaitza</b>	Txosten tekniko bat egin da.

#### Q20160156 espedientea

<b>Kexaren arrazoia</b>	Komunikabidea. Emakume bati buruzko iritzi-artikulu bat aldizkari batean.
<b>Esku hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Emaitza</b>	Institut Catalá de les Dones erakundera bideratu da.

## 2.2 Lan-eremua

Kasuen %28, gutxi gorabehera, **lan-eremukoak** izan dira, gai hauei buruzkoak: bizitza pertsonala eta familiarra eta lan-bizitza kontziliatzeko eskubideak baliatzea; aitatasun edo amatasungatiko diskriminazioa, eta sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena, eta abar.

Hori horrela, aplikazio espezifikoko arau gisa honako hauek aipatuko ditugu:

- Langileen Estatutua; 17. artikuluari jarraikiz, nuluak izango dira sexuagatiko zuzeneko edo zeharkako diskriminazio-egoerak dakartzaten erregelamendu, hitzarmen, itun eta erabakiak.
- 39/1999 Legea, azaroaren 5ekoa, Langileen familia- eta lan-bizitza uztartzea sustatzekoa. Lege hori oso garrantzitsua izan da, legegintza-aldaketak ekarri baititu lan-arloan, langileen lan- eta familia-erantzukizunak uztartzea errazteko.
- 56/2003 Legea, abenduaren 16koa, Enpleguarena; eta horren 22 bis artikulua, enplegua lortzeko diskriminazioa debekatzen duena.
- 1620/2011 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Familia-etxeko zerbitzuaren izaera bereziko lan-harremana arautzen duena.

Eremu honetan tratatutako kasuak zerrendatu baino lehen, Emakunden trataturiko kasu-mota bat nabarmendu nahi dugu, oso ondo adierazten baitu zer zailtasun dituzten emakumeek gaur egun. Haurdun dauden emakume langileen eskubideak ukatzen diren kasuez ari gara.

Arazoaren jatorrian, oso ezberdinak diren bi gairen inguruan dagoen nahasketa dago, kontuan izanda bi egoera horietatik oso eskubide ezberdinak eratortzen direla.

Batetik, haurdunaldiko arrisku-egoera dago; kasu horretan, langilea ez dago gaixorik, eta bere haurdunaldiak ez dauka, berez, inolako arriskurik; lanpostua, ordea, bai da arriskutsua langilearen haurdunaldiarentzat, eta ezin zaio aurkitu arriskurik gabeko beste lanposturik. Bestetik, arrisku-handiko haurdunaldia dago; kasu horretan, haurdunaldia bera da konplikazio klinikoak dituen, eta, halakoetan, gaixotasun arrunta kontsideratzen da prestazioei begira.

Ezberdintasun hori oso garrantzitsua da prestazio ekonomikoak jasotzeari begira. Lehenengo kasuan, emakumeak oinarri arautzailearen %100 jasoko du; bigarreanean, berriz, ez. Arazoa edo

justiziarik eza honako honetan dago: mutuen eta osasun-profesionalen joera da kasu guztiak bigarren talde horretan sartzea; hala, prestazio txikiagoa jasotzen dute, hau da, gaixotasun arruntari dagokiona. Kalifikazio horren ondorioz, gaixotzat jotzen da emakume haurduna, eta, gainera, kalte ekonomiko handia eragiten zaio.

Hona hemen Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Herritarren Berdintasunerako eskubideak Defendatzeko Arloan jarritako kexa eta salaketen zerrenda, erakundearen esku-hartzea eta esku-hartzen horren emaitza.

<b>D20160111 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Lan-eskaintza sexista
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Enpresarekin harremanetan jarri da.
<b>Emaitza</b>	Erretiratu egin dute eskaintza

<b>D20160114 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Lan-eskaintza sexista
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Enpresarekin harremanetan jarri da.
<b>Emaitza</b>	Erretiratu egin dute eskaintza

<b>D20160102 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Lan-eskaintza sexista
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Aztertu du
<b>Emaitza</b>	Gomendioa igorri du

<b>D20160011 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Emakumerik ez enpresa baten kongresuko hizlarien artean.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Enpresarekin harremanetan jarri da, eta gomendioa egin die.
<b>Emaitza</b>	Zain dago



EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

<b>D20160012 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Kontziliazio-eskubideak baliatzeko zailtasunak.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Harremanetan jarri da interesdunarekin, dituen eskubideei buruzko informazioa emateko.
<b>Emaitza</b>	Atzera egitea

<b>D20160069 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Lan-eskaintza sexista
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Enpresarekin harremanetan jarri da.
<b>Emaitza</b>	JARRAIPEN BATZORDEAK

<b>D20160115 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Lan-eskaintza sexista
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Enpresarekin harremanetan jarri da.
<b>Emaitza</b>	Enpresak barkamena eskatu du.

<b>Q20160062 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Sexu-jazarpena: enpresa publiko batek azpikontraturiko langile batek bezero bati.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Enpresarekin harremanetan jarri da, eta gomendioa egin dio.
<b>Emaitza</b>	Enpresa jokabide-mota hauek guztiak desagerrarazteko konpromisoa hartu du.

<b>Q20160127 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Errepresaliak lankide baten jokabide desegokiak salatzeagatik.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da aldeekin.
<b>Emaitza</b>	Enpresak emakume langilearen eskaera onartu du: laneko txanda aldatu dio.

<b>Q20160077 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Ez zaio aitortu haurdunaldiko arriskuagatik prestazioa.



<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Lan-ikuskaritzaren laguntza eskatu du.
<b>Emaitza</b>	Izapidetzen ari da

<b>Q20160015 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Sexuan oinarrituriko jazarpenaren ostean lanetik kaleratzea.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Ez du esku hartzen, kaleratzea judizializatuta dagoelako.
<b>Emaitza</b>	Lan-ikuskatzaitzara bideratu da

<b>Q20160139 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Lana ukatu diote familia-zamak izateagatik
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Kasua aztertu du.
<b>Emaitza</b>	Ez dute lortu akordio batera iristea, eta egitateak zehaztera ere.

<b>Q20160145 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Laneko sexu-jazarpena.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Kasua aztertu du.
<b>Emaitza</b>	Enpresak ez du lortu egitateak zehaztea, eta, ondorioz, inplikaturiko bi aldeek ez kointziditzea hartu du neurri bezala.

### 2.3 Beste eremu batzuk

Herritarrek beste eremu askotako kexa eta salaketak aurkeztu ditu, hala nola kirol, elkarte, seinale eta abarren eremuak.

Kirol-eremua dela eta, 3/2007 Lege Organikoak kirola garatzeko egitasmo publiko guztien diseinuan eta egikaritzean emakume eta gizonen arteko berdintasun errealaren eta eraginkorraren irizpideak txertatzen dituela azpimarratzen du (29. artikulua).



Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

<b>D20160070 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Eduki sexistako ikuskizun bat kirol-klub bateko ospakizun batean.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Klubarekin harremanetan jarri da.
<b>Emaitza</b>	Gomendioa igorri du

<b>D20160023 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Diskriminazioa sarietan (paddle).
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Emakunde harremanetan jarri da aldeekin.
<b>Emaitza</b>	Gomendio bat egin zaie

<b>D20160144 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Material didaktiko sexista web orri batean
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Aztertu du
<b>Emaitza</b>	Gomendioa

<b>D20160150 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Seinaletika sexista
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Aztertu du
<b>Emaitza</b>	Gomendioa igorri du

<b>D20160155 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Seinaletika sexista
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Aztertu du
<b>Emaitza</b>	Gomendioa igorri du

<b>D20160159 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Jostailu sexista



<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Aztertu du
<b>Eraitza</b>	Gomendioa igorri du

<b>D20160027 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Dekorazio sexista ostalaritzako lokal batean
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Aldez aurretik, azterketa egin da.
<b>Eraitza</b>	Lokalaren arduradunari igorri zaio kexa

<b>D20160067 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Paritate-falta kongresu bateko partaideen artean
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Kasua aztertu da.
<b>Eraitza</b>	Kexa enpresara igorri da.

<b>Q20160143 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Diskriminazioa langabeziako prestazioa kotizatzerakoan, arrisku-haurdunaldi bat gaixotasun arrunta kontsideratzeagatik.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Ikerkuntza
<b>Eraitza</b>	Txostena eman da, eta Emakumearen Institutura eta Arartekora bideratu da.

<b>Q20160005 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Zerbitzu publiko batean sartzeko aldeko baldintzak galdu ditu (kirol-eremua) haurdun egoteagatik.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Aztertu du
<b>Eraitza</b>	Txostena eman da, eta sindikora bideratu da.



Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

### 3. KEXAK ETA SALAKETAK, BESTE INSTANTZIA BATZUETARA BIDERATUAK, EZETSIK ETA EZ-ONARTUAK

<i>D20160034 espedientea</i>	
<i>Kexaren arrazoia</i>	Paritate-falta enplegu publikorako irispiderako epaimahaietan.
<i>Eraitza</i>	Arartekoa bideratua

<i>D20160076 espedientea</i>	
<i>Kexaren arrazoia</i>	Familia-etxeke zerbitzua
<i>Eraitza</i>	Arartekora bideratzeko baimefnaren zain.

<i>D20160105 espedientea</i>	
<i>Kexaren arrazoia</i>	Hizkuntza sexistako kartela epaitegietan
<i>Eraitza</i>	Arartekora bideratua

<i>D20160122 espedientea</i>	
<i>Kexaren arrazoia</i>	Hizkuntza sexista dokumentu administratibo batean
<i>Eraitza</i>	Arartekora bideratua

<i>Q20160039 espedientea</i>	
<i>Kexaren arrazoia</i>	Funtzionario baten zailtasunak kontziliazio-eskubideak baliatzeko
<i>Eraitza</i>	Arartekora bideratua



EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

<b>Q20160048 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Enplegu-eskaintza sexista udaletxe batean
<b>Eraitza</b>	Arartekora bideratua

<b>D20160072 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Desorekak prestazio ekonomikoetan, dependentzia duten pertsonen zaintzaren eremuan.
<b>Eraitza</b>	Arartekora bideratua

<b>D20160091 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Diskriminazioa, toki-entitate batek kirol-eremuko baliabideak esleitzerakoan.
<b>Eraitza</b>	Arartekora bideratua

<b>D20160158 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Irudi sexistak material didaktikoan
<b>Eraitza</b>	Institut de la Donnara bideratu da

<b>D20160006 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Hizkuntza sexista lanbide-kidego bati izena ematerakoan
<b>Eraitza</b>	Arartekora bideratua

<b>D20160030 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Argiztapen-falta hiriko puntu beltz batean
<b>Eraitza</b>	Dagokion udaletxeko berdintasun-zerbitzura bideratu da

<b>Q20160126 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Diskriminazioa guraso bakarreko famili bati kiroldegiko tasak ordaintzerakoan.
<b>Eraitza</b>	Arartekora bideratua



Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

<b>Q2016009 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Diskriminazioa kirol-instalazio publikoetara sartzeko.
<b>Emaitza</b>	Arartekora bideratua

<b>Q20160135 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Lantokiz aldatzea genero-indarkeriagatik.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Aurretiko azterketa
<b>Emaitza</b>	Ez da onartu, epez kanpo egoteagatik.

<b>Q20160071 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Diskriminazioa elkarte gastronomiko batean bazkide bezala sartzeko (oinordetza).
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Aurretiko azterketa
<b>Emaitza</b>	Ez da onartu, epez kanpo egoteagatik.

<b>Q20160129 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Diskriminazioa elkarte gastronomiko batean fisikoki sartzeko.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Aurretiko azterketa
<b>Emaitza</b>	Artxibatuta.

<b>D2016024 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Tratu diskriminatzailea epaitegietan.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Arartekora bideratzeko baimena eskatu da.
<b>Emaitza</b>	Artxibatuta.

<b>D20160041 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Irudi sexistak jolas-ferian.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Azterketa egin da.
<b>Emaitza</b>	Artxibatuta.

<b>Q20160132 espedientea</b>	
<b>Kexaren arrazoia</b>	Tratu sexista ostalaritzako lokal batean.
<b>Emakunderen esku-hartzea</b>	Aurretiko azterketa
<b>Emaitza</b>	Artxibatuta.

## 4. KOORDINAZIO- ETA LANKIDETZA-MEKANISMOAK

Beste erakunde batzuekiko harremana dela eta, 2016. urtean harremanak eta bilerak izan dira erakunde publikoekin, lankidetzeta-mekanismoak ezartzeko.

2015ean, lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zen Emakunderen eta Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen artean. Hitzarmen hori koordinazio- eta lankidetzeta-printzipioetan oinarritzen da. Printzipiook dira, bada, 2016an zehar erakunde horrekin izandako harremanen funtsa. Esparru horretan egindako jarduera nagusia laneko osasunari buruzko jardunaldiak elkarrekin diseinatu eta antolatzea izan da. Aldi berean, lan- eta koordinazio-bilera batzuk egin dira herritarren kontsultak erantzuteko protokolo bat garatzeko.

2016ko maiatzean, lankidetzeta-hitzarmena sinatu zen Emakunderen eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzako Lan-ikuskaritza eta Gizarte Segurantzako zuzendariordetzaren artean, euskal autonomia-erkidegoko enpresetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna benetan bermatzen dela zaintzeko. Hitzarmen honen helburu nagusia da harremanetarako bide azkarrak ezartzea, sektore pribatuan ustez jasandako sexu-diskriminazioko egoerak ikertzeko benetako informazioa lortzeko, eta kexa berberari lotutako baterako jarduerak adostu, bai eta bien interes eta erantzukizunekoak diren gaiei lotutako lankidetzeta eta jarduerak garatu ere.

EHUko Zuzenbide Fakultateko Klinika Juridikoarekin lankidetzan aritu gara, Emakundeko Herritarren Berdintasunerako eskubideak Defendatzeko Arloaren esku-hartzeen eta adibideen bitartez.